

KMren liburutegi zerbitzua, Tabakalerara?

Udal Gobernuak Koldo Mitxelenako liburutegi zerbitzua Tabakaleran egotea nahi du.

I. Lopez

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak adostu zuten Euskal Liburutegi Nazionala Koldo Mitxelenaren eraikinean ezartzea. Ramon Etxezarreta kultura ordezkariak azaldu zuenez, Udal Gobernuak kezkatuta dago Koldo Mitxelenako liburutegi zerbitzuaren etorkizunarekin. Horregatik, Tabakaleran ezartzearen aldeko iritzia azaldu diegu Jaurlaritza eta Aldundiari.

Kultura Ordezkariak adierazitakoaren arabera, kezkatuta gaude, Koldo Mitxelenak eskaintzen duen zerbitzu bat desagertu egin daitekeelako. Udal zerbitzua ez bada ere, donostiar eta gipuzkoar askori liburutegi zerbitzua ematen dio eta oso garrantzitsua da hiriarentzat

Ikuspegi aldaketa

Koldo Mitxelenak Euskal Liburutegi Nazionala hartzen duen unetik aurrera Donostiako liburutegi zerbitzuaren ikuspegia guztiz aldatuko da Etxezarretaren hitzetan. Udal Liburutegien Sarearekin eta Koldo Mitxelenarekin gaingitu egiten dira Nazioarteko Liburutegien Federazioak ezartzen dituen batez bestekoak, baina Koldo Mitxelenaren zerbitzua desagertuko balitz, hirian ez litzateke kopuru horietara iritsiko.

Euskal Liburutegi Nazionalak, euskal ondare bibliografikoa gordetzea eta zaintzea izango du helburu, beraz, dirudienez ez du liburutegi zerbitzurik eskainiko.

Hemendik aurrera Tabakaleraren etorkizuna finkatzeko bileretan gai zalapartatsua gerta daiteke honako hau.